

“ZUBELTZU”

VII. Bertso Paper Sariaketa

DEBA-ITZIAR 2016



ANTOLATZAILEAK:



tokian tokikoa bultzatuz

“ZUBELTZU”

VII. Bertso Paper Sariketa



DEBA-ITZIAR

2016

AURKIBIDEA

• **SARRERA** 7

• **LEHEN HEZKUNTZA:**

5A GELA

ANETXI: Ane Zelaia	10
ANIT: Ane González	10
ANTXUS: Maialen Antxustegi	11
BARRE: Xabi Barrera	11
BEHATZ-GORRI: Maddi Aizpurua	12
ELORDI: Julen Elordieta	12
KAIZ: Kerman Aizpurua	13
LIZARZA: June Lizartzaburu	13
LUTXI: Lucia Saá	14
PEREZ ARRATOIA: Ibai Pérez	14
PONCETXU: Amaieur Ponce (2. SARIA)	15
SALE: Ibai Salegi 14	15
TORRE: Danel Aranberri (3. SARIA)	16
TXURRU: Xabi Txurruka	16
YUNI: Ione Aranberri	17

5B GELA

BASERRI: Aner Exposito	18
GELAKO JATUNA: Kimetz Oñederra	18
I.O.I: Itxaiz Otalvaro	19
KATXIS: Lur Etxaniz	19
LPTREVIJANO: Lucia Madina	20
LUIS MARI: Ion Ruiz de la Torre	20
MARTIJATARRAK: Gorka Aiastui	21
MEJ: Maddi Urkiri	21
MIRENTXI 2005: Miren Agirrezabalaga	22
MOKORDO: Danel Rodríguez	22
MR. WONDERFOUL: Nora Ait Akki	23
NATXIA_2200: Nadia Peralvo	24
NI: Ainhize Azkarraga	25
POLOA: Andrea Aldalur	25

POTOLO: Jon Goikoetxea	26
REMI GAILLARD: Jon Ander Osa	26

5C GELA

DEBA: Ane Castillo	27
DEBAKO FESTEKIN: Unax Martín	27
EGUZKIA: Janire Prieto	28
FUTBOLARI: Aritz Zubiaurre	28
GAILETA: Laura Amasorrain	29
JEEF THE KILLER: Jon Anuntzibai	29
KANTARI: Nerea Urbizu	30
KOKAKOLA: Telmo Faces	30
KOMUN ZULO: Julen Rodríguez	31
LABERINTA: Nora del Olmo	31
LENAD SENORUF: Danel Furones	32
MAKARROIA: Urko García	32
NARAÑEB IABI: Ibai Beñaran	33
OREO: Iزارo González	33
SUPER-DANTZARI: June Lizaso	34
TXOKOLATE: Haizea Zubimendi	34

6A GELA

1.0.2.3.: Aitor G.	35
AKINATOR: Paul Suárez	35
BELDURTI: Aroa Zulaika	36
CERDOMAN: Unax Arrieta	36
DORAEMON: Irati de Anta	37
DUDIMAN: Ibai Unanue	37
GOMINOLA: Amaia Aceña	38
HARTZA: Beatriz Osa	38
HERNANDEZ: Oier Izagirre	39
HODEI: Borja Aires	39
IZA: Xabi H. B.	40
JOXEPE: Leire Sagarna	40
KODE EZKUTUA: Andrew I.	41
LOINIK SIN: Najwa Belmokadden	41

NEKATUTAAAA...: Manex Prieto	42
NIKI: Nikola Silvan	42
PEPITO: Jon Loidi	43
SIN CHAN: Maren Beristain	43
SUPERMAN 1: Jon González	44
SUPERMAN 2: Maite Aperribai	44
XELEBRE: Markel Beristain	45
ZERUA: Haize Urbietta	45
ZZZZZ ! ! !: Danel Formáriz	46

6B GELA

ADOLFO DOMINGEZ: Markel Abadia	47
AGURBENUR: Nerea Zubia	47
ANTONIO RECIO: Unax Etxabe	48
ARRAINA: Ane Rodríguez	48
ASMATU?: Alejandro Morillo	49
BERIS: Irati Beristain	49
DANTZARI: Olatz Zabala	50
DEBARRA: Beñat Iriondo	50
EIBAR: Oihane Izquierdo	51
EZ IRAKURRI: Xabi Txibite	51
GARRIALBI: Garazi Garrido	52
INTXAURRONDO: Maren Lobete	52
IZURDEA: June Sdupe (1. SARIA)	53
JUGADA: Jon Movellan	53
LA TXONI: Unax Arratibel	54
MR. WILLIAMS: Gorka Arrizabalaga	54
MV7: Markel Villa	55
NONAINONAINONAI: Lizar Eguren	55
SALAMI KAPITAINA: Derese Pancorbo	56
SOTA: Martina Soto	56
TAURO: Nahia Pérez	57
TXARRAMINTXORRUN: Izar Froilan	57
TXIKITO DE LA KALTZADA: Aimar Carsi	58
ZER?: Jare Bengoa	58

• **D.B.H.:**

AMY ETA KATIE: Sara Goikoetxea eta Maite Iglesias	60
ANONIMOA: Aitor Arakistain	61
DUDATSUA: Maialen Beristain	63
EGUZKIA: Ane Arrizabalaga	64
E.T.E: Lide Laka	65
GUAKAMOLE: Julia Ron (3. SARIA)	66
IH: Irati Aznal eta Haizea Egaña	67
ITXASPE: Aloña Salegi (1. SARIA)	68
KAXERA: Ainhoa Agirregomezkorta	70
MAIATZA: Irati Aznal (2. SARIA)	71
TIKARA: Amaia Arotzena	72
ZARA: Ane Agirregabiria	73

• **NAGUSIAK:**

ERMITTA: Zigor Agirre	76
KALABAZA: Josune Arakistain	78
KRONISTA TXEPELA: Karlos Larrañaga	81
TEO: Ander Zulaika	84



Irakurle:

Iritsi gara Zubeltzu Bertso-paper sariketaren VII. ediziora! Eskuartean duzun liburuxka honetan, aurten sariketan parte hartu dutenen lanak bildu ditugu. Urtero bezala, hiru maila bereizi ditugu: gaztetxoak, gazteak eta nagusiak.

Honako lan eta gaiak jarrita aritu behar izan dute parte hartzaileek:

- GAZTETXOAK (2004.ean jaiotakoak eta gazteagoak):
 - Lana: Bertso bat edo 2 koplak gutxienez, gai honekin:
LO HARTU EZINIK NAGO
- GAZTEAK (2000-2003an jaiotakoak):
 - Lana: 3 bertso edo 6 koplak gutxienez, gai honekin:
TELEBISTAKO SAIO BETERA JOATEKO ZALANTZAN
NAGO
- NAGUSIAK (1999koak eta zaharragoak):
 - Lana: Gai librean, 4 bertso edo 8 koplak, gutxienez

Hemen dituzu bada, bata bestearen atzetik, irakurtzeko moduan. Gozatu ditzazula.

***Debako Udaleko Euskara Batzordea
eta ZUHATZA euskara elkarte***





ZUBELTZU

LEHEN HEZKUNTZA

5. MAILA

(5A gela)

EZKUTATU BEHARRA

1- Gaur gauean banabil
ezin dut lo hartu
gutxi bat atera dut
ta nahi ezkutatu.

2- Konturatu orduko
umorea agortu
amak harrapau ein nau
ta gero zigortu.

Doinua: Ama begira zazu
ANETXI: Ane Zelaia

BIHAR NERE URTEAK ETA...

Nere logelan nago
ta ez nago trankil
bihar nere urteak
ta oso pozik nabil

Lo hartu gabe nago
ta urduri xamar
lokartu nahi det eta
hauxe ahaztu azkar

Doinua: Ama begira zazu
ANIT: Ane González

TXAPELKETAN PENTSATZEN

1- Pijama jantzi eta
zerua ilun dago
logelako ohean
ni etzanda nago.

2- Ezin dut lorik hartu
txapelketagatik
azkenean lo hartu dut
ta nik ongi dakit.

Doinua: Ama begira ezazu
ANTXUS: Maialen Antxustegi

OHEAN ETZANDA

1- Ordu bat pasatu dut
ohean etzanda
agian afaltzeko
koka kola izan da.

2 - Aspertuta nago ta
ez dakit zer egin
hobe amari deitu
ta lo hartu berekin.

Doinua: Ama begira zazu
BARRE: Xabi Barrera

GUTXI BAT ATERA DUT

1- Etxeko izarak eta
ipuin bat gehiago
gutxi bat aterata
kezkaturik nago

2- Gutxitxo ikasi dut
nik eskolan aurten
ai ze bronka ederra
botako didaten!

Doinua: Ama begira zazu
BEHATZ-GORRI: Maddi Aizpurua

URDURI NAGO

Nere logelan nago
ohean etzanda
begiak irikita
mahaiari begira
bihar kontrolak ditut
txanela (e)ta euskara
oso urduri nago
banoa ikastera.

Doinua: Maritxu nora zoaz
ELORDI: Julen Elordieta

GAUR EZIN DET LO EGIN ETA SALARA NOA

1- Gaur ezin dut lo egin
ta salara noa
amak bota dit bronka
ta negar mordoa.

2- Haserretuta noa
nire logelara
ipuin bat hartu eta
ondoren ohera.

Doinua: Ama begira zazu.

KAIZ: Kerman Aizpurua

ANAIA TXIKIAREN ZAIN

Logelan nerbiosa
paretaren kontran
amaren argazkia
dut nire eskutan
atea jo digute
banoa korrikan
besarkada eman ta
a ze poza neukan.

Doinua: Triste bizi naiz.

LIZARZA: June Lizartzaburu

KONTROLA BURUAN

1- Ni logelan banago
lo hartu ezinik
gutxi atera eta
kontatu nahi ezik.

2- Ohetik jaiki jada
ta sala joan naiz
nere ama hor dago
zerbeza edanaz.

3- Esan diot gutxi bat
atera detela
bronka handi bat bota
dit neri horrela.

Doinua: Ama begira zazu
LUTXI: Lucia Saá

MUSIKA HORREKIN

1- Ohean sartu naiz ni
logurearekin
argia itzali dut
gogo askorekin.

2- Musika bat entzun dut
pianoarekin
biolin klarinete
eta tronpetakin.

3- Belarriak tapauta
almohadarekin
ederki estutu dut
indar haundiakin

4- Lo hartu ezinikan
amorruekin
horrelaxe nabil ni
musika horrekin

Doinua: Ama begira zazu
PEREZ ARRATOIA: Ibai Pérez

FAMILIA

2.
SARIA

1- Momentu txarra nago pasatzen
eta ez dago besterik
ez nun uste holako gauza bat
sentituko nuela nik
kontatuko dizuet zergatik
nagoen orain tristerik:
gaur nire aitona hil da eta
nabil lo hartu ezinik.

2- Bizitza aurreraka doa ta
ezin zara hor gelditu
gauza batzuk joan iten dira
ta ez ditugu nahi ahaztu
lurrera erori eta gero
egin behar da alztatu
horrelakoa dugu bizitza
ta egin behar da gainditu.

Doinua: Badira hiru aste
PONCETXU: Amaiur Ponce

MAZZANTINIKO KOKAKOLA

1- Ni Mazzantinin nago
nire aitan tabernan
Kokakola botila
nahiko nuke edan.

2- Orain etxera noa
Kokakola edanez
eta gero ohean
lo hartzeko lanez.

Doinua: Ama begira zazu
SALE: Ibai Salegi

TXUPINAZOAGATIK LO HARTU EZINIK

3.
SARIA

1- Egun guztian kriston euria
ni nagola kezkatu
oso gutxi falta dala eta
gauzak ditut prestatu
txupinazoa hasi behar dalako
nago emozionatu
San Rokeak onak dialako
nago lo hartu ezinik.

2- San Rokean jendia dagola
mugitzeko gogutakin
zapi gorria lepoan eta
aurpegian irriakin
gazteak daoz zerbezarekin
umeak buru handiekin
hola dia San Rokeak hemen
festa, dantza ta umoreakin.

Doinua: Badira hiru aste
TORRE: Danel Aranberri

BIKAIN ATERA DUT

Bikain atera dut ta
nago oso pozik
aitari esatea
nago ni ahazturik
pozik jarriko dala
hori badakit nik
lo hartu ezinik nago
hori ongi dakit.

Doinua: Ama begira zazu
TXURRU: Xabi Txurruka

ELURRA GIPUZKUAN

Ohean lo hartu ezinik nago
sartzen baigera neguan
telebistan eman den bakarra
da elurra Gipuzkuan,
emozioaren emozioz
nago urduri barruan.
Ardiak kontatzen hasi naiz ta
lo hartu dut segituan.

Doinua: Badira hiru aste
YUNI: Ione Aranberri



(5B gela)

EGUNA PASATU

Eguna pasatu ta
ezin dut lo hartu
ohe gainean nago
sabaira beiratu,
azkenean amana
joan da konpondu
handik pixka batera
lo hartuko dugu.

Doinua: Behin batean Loiolan

BASERRI: Aner Exposito

NERE AMA ETA NI

Behin batian gauean
nere amak eta nik
lana izan genuen
lo hartu ezinik
bertsoa kantau zuen
gelako lñakik
nire ama ondoan
lo hartu horregatik.

Doinua: Behin Batian Loiolan

GELAKO JATUNA: Kimetz Oñederra

NIRE BEGIAK

1- Lo hartu ezinik nago
amets bat idatzi
nire pelutxeak hartu
ta begiak itxi.

2 - Bapatean begiak
alai zabaltzeko
esne baso bat hartu
behingoz lo hartzeko.

Doinua: Ikusi nuenean
I.O.I: Itxaiz Otalvaro

HOTZA DUT, KATXIS!!!

Hotz handia dut eta,
nun da nire manta?
Azkartxo jaiki eta
salara saltaka
salan ez dago manta
badago zapata
azkenian denakin
bukau det nazkauta.

Doinua: Maritxu nora zoaz
KATXIS: Lur Etxaniz

GAUEKO HISTORIA

1- Lo hartu ezinik naiz
kanpoan euria,
kontatu nahi dizuet
gaueko historia.

2- Gaueko hamarretan
sartu naiz ohera,
ateari begira
amari deitzera.

3- Lo hartzeko pastilak
bilatzen saiatu,
begiak itxi eta
ez dut nahi esnatu.

Doinua: Ama begira zazu.
LPTREVIJANO: Lucia Madina

TXIXA LARRIA

Kumunera joan nahi dut
behingoz lo hartzeko
baina bildurra daukat,
norbait azaltzeko
nere ama esnatu
txixa egiteko,
gero ohera joan naiz
han deskantsatzeko.

Doinua: Triste bizi naiz eta
LUIS MARI: Ion Ruiz de la Torre

EZIN DUT LORIK HARTU

Ezin dut lorik hartu
bero handiakin
manta handia kenduz
izardiarekin
amari esan diot
nerbio askorekin
Dormidina hartuta
ohera amakin.

Doinua: Triste bizi naiz eta
MARTIJATARRAK: Gorka Aia

GAU HOTZA

Hotz handia dakat ta
joan naiz salara
salan manta hartu ta
berriro gelara
ohean manta jarri
goxo nago jada
ez dut arazorik ta
banoa lotara.

Doinua: Triste bizi naiz eta
MEJ: Maddi Urkiri

GAUR BORROKA EUKI DUT

1- Gaur borroka euki dut
nire lagunekin
horregatik ohean
ni amets txarrekin
ezin dut lorik hartu
nire anaiakin
a ze gau aldrebesa
nire ametsekin.

2- Orduan nik euki dut
bero ta ikara
horretarako ez naiz
etorri lotara!
Azkenean anaia
isildu da jada:
nire borroka ere
ametsa izan da.

Doinua: Triste bizi naiz eta
MIRENTXI 2005: Miren Agirrezabalaga

LO HARTU EZINIK

Lo hartu ezinik nago
hartu dut kafeina
almohada mugitu
eta Dormidina
handik bost minutura
hankan neukan mina
bihar esnatu eta
orain bai makina

Doinua: Triste bizi naiz eta
MOKORDO: Danel Rodríguez

KARTAREN ARAZOA

1- Behin batean logelan
karta bat idazten,
mutiko polit bati
karta bat bidaltzen,
ikusten nuenean
harro jartzen nintzen
gaueko hamabietan
beldurtuta esnatzen.

2- Lo ezinik nengoen
zer esango zuen,
mutikoan etxera
joan nintzen hurbiltzen,
karta hartu nuela
zein konturatu zen?
nire etxera sartuta
lotara joan nintzen.

Doinua: Behin batean Loiolan
MR. WONDERFOUL: Nora Ait Akki



BELDURRA OHEAN

Ohera ni sartu naiz
dantzan ta poz-pozik
sufritzen hasi naiz ni
ez dakit zergatik

Belarrian ahotsak
orain entzun ditut
ez dakit zein den hori
baina beldurra dut!

Paralisis bat dela
ohartu naiz arin
negarrez hasi eta
amari dei egin.

Doinua: Ikusi nuenean

NATXIA_2200: Nadia Peralvo



A ZE BEROA!!!!

1- Gaur sartu naiz ohean
berandu da jada
berua dakat eta
bueltau det almohada
baina erretzen nago
ematen det laba
ez dago erremedioik:
kendu behar izara.

2- Sukaldera joan naiz
munstro itxurekin
ta gero lasaitu naiz
baso bat urekin
bueltatu naiz ohera
logurearekin
oso ondo in det lo
amets politekin.

Doinua: Triste bizi naiz eta
NI: Ainhize Azkarraga

MUSIKA IXO ORAIN

Ezin dut lorik hartu
musika dago ta,
logurea dakat nik
ta nago lur jota,
lo hartu nahi dut orain
ta siesta bota
almohada ipini dut
buruaren kontra.

Doinua: Triste bizi naiz eta
POLOA: Andrea Aldalur

LOGUREA

1- Anaia gelan sartu
mobila ezkutauta
argia egiten du
lo in gabe, kaka!

2- Hurrengorako dakit
zer in behar deten
mobila ezkutau eta
jolastea eten.

Doinua: Ama begira zazu
POTOLO: Jon Goikoetxea

NIRE ANAIAREN NEGARRAK

Gaurko bederatzitan
lo hartu dut gauetz
eta nire anaiak
nahi ordurako ez
nire anaia esnatu
eta hasi negarrez,
biberioa hartuta
lo hartu du errez.

Doinua: Behin batian Loiolan
REMI GAILLARD: Jon Ander Osa

(5C gela)

TELEBISTA GEHIEGI IKUSI AMONAKIN

1- Lo hartu ezinik ta
buruko minakin
telebista gehiegi
ikusitamonakin.

2- Gero gogoratuta
bihar kontrolakin
kriston nerbiosajarri
erresuminakin.

Doinua: Ama begirazazu
DEBA: Ane Castillo

NIRE LOGELAN, DEBAKO FESTETAN

Ezin dut lo egin ta
nago logureakin
nekatuta nabil ta
ez dakit zer egin
ezin dut hola segi
zenbat galderekin
agian ezin dala
Debako festekin.

Doinua: Maritxu nora zoaz
DEBAKO FESTEKIN: Unax Martín

AITAREN ZURRUNGAK

Ezin dut lorik egin
nire aitarekin
zurrungaka ari da
bere ahoakin
goizetan esnatzen naiz
logurearekin
lo egin beharko dut
nire amarekin.

Doinua: Astoa ikusi nuen
EGUZKIA: Janire Prieto

NIRE URTEAK

1- Lo hartu gabe nago
nerbio asko ditut
bihar nire urteak
direla uste dut.

2- Hurrengo egunean
jaiki naiz alaiki
opariak nahi ditut
eskuan eduki.

Doinua: Ama begira zazu
FUTBOLARI: Aritz Zubiaurre

HASERRETUTA

1- Ohean sartu eta
lo hartu ezinik
logurea falta zait
badakit zergatik.

2- Haserrea hartu dut
lagun batekin nik
hala segitu ezker
laister lagun barik.

Doinua: Haurrak ikas zazue
GAILETA: Laura Amasorrain

LO HARTU EZINIK NAGO TELEBISTA IKUSIZ!!!!!!

1- Lo hartu ezinik nago
oraingoan berriz
ondo pasatu eta
telebista ikusiz.

2- Eta oraingoan berriz
lo hartu ezinik
etxean epel epel
sutondoan pozik.

Doinua: Ama begira zazu
JEEF THE KILLER: Jon Anuntzibai

AUTOBUSEKO ARAZOA

1- Autobusian nago
lo hartzen saiatzen
ta nere albokua
berriz dau kantatzen
esan diot “ixildu”
ta ez da geratzen
lasaitzen saiatu naiz
ta ez du funtzionatzen.

2- Musika gehio igo du
ni nau amorratzen
mobila kendu diot
ta ez da enteratzen
musika itzali nahi det
ari naiz saiatzen
lo hartu nahi det eta
jada nago lortzen.

Doinua: Haurrak ikas zazue
KANTARI: Nerea Urbizu

ESKERRIK ASKO FRENADOL!!!

Lo hartu ezinik nago
Kokakolagatik
manta goxoarekin
ni nago gaixorik
negarrez hasi naiz ta
xiringarengatik
orain hobeto nago
Frenadolengatik.

Doinua: Maritxu nora zoaz
KOKAKOLA: Telmo Faces

KOMUN ZULOAN

Lo hartu ezinik nago
txizagureangatik
komunera joan eta
erori zulotik
jaiki eta ohera
joan beharra dut nik
manta goxoarekin
lo hartu dut pozik.

Doinua: Errota zar maitea
KOMUN ZULO: Julen Rodríguez

BELDURRA

1- Ohean sartu eta
lo hartu ezinik
amets txarrak ditut ta
ohean etzanik
eta lapurrak ere
kontuan harturik
beldurrak gaintitzeko
nahiko lan daukat nik.

2- Amari esan diot
beldurra naukala
eta amak esan du
inor ez dauala
beldurrak gaintituta
hobeto nauala
ta kasu egin diot
behar den bezala.

Doinua: Maritxu nora zoaz
LABERINTA: *Nora del Olmo*

URDURI %100

1- Lo hartu ezinik nire ohean
beldurra logurean gaitz,
mantan gainian etzan beharra
ta urduri sentitzen naiz.

2- Gogoratu naiz kontrolerako
ikasi gabe noala,
entrenamendura joan gabe
ta bihar futbol finala.

Doinua: Kontu berri bat
LENAD SENORUF: Danel Furones

AZTERKETA

1- Lo hartu ezinik nago
azterketagatik
oso zaila da eta
hori badakit nik.

2- Ikasten nago eta
gogo handiekin
nota onak atera
nire lanarekin.

Doinua: Haurrak ikas zazue
MAKARROIA: Urko García

LAGUNEKIN NAGO

Kalean nago eta
nik lo hartu ezin
saiatuko naiz baina
dago oso zikin
kaletako bankuak
daude lokatzakin
azkeneko aldian
nago lagunekin

Doinua: Furra furra.
NARAÑEB IABI: Ibai Beñaran

UMEAK BELDURTURIK!!!

1- Sofan nago ikusten
Chucky pelikula
beldur handi hau ez det
sentitu sekula.

2- Beldurturik umeak
edan du esnea,
sorgina etorri da
ta baita sugea.

3- Lo hartu ezinik nago
pelikularekin
lo hartu nahi det baina
pastila batekin.

Doinua: Ikusi nuenean
OREO: Iزارo González

GAU TXARRA

1- Lo asko egin gabe
gau osoa nago
gaixorik nagoela
sentitzen naiz raro.

2- Sukalderuntz noala
lorik hartu gabe
pentsatzen dut nagola
gaixki eta grabe.

Doinua: Ama begira zazu
SUPER-DANTZARI: June Lizaso

BELDURTUTA LORIK EGIN GABE!!!

1- Beldurrezko filma ikusita
beldurrez noa ohera,
“zeba ikusi det pelikula?”
egiten det nik galdera,
munstro bat zegoen telebistan
ta ez zijoan lanera,
jende asko hiltzen zuen eta
gero zijoan etxera.

2- Jada gabeko hamabiak dira
ta nago logurarekin,
egonda ohean asko pentsatzen
agian munstroarekin,
hartuko det lo gaurko gauean
nahi det gau osoan egin,
lo hartu det plis-plas batean ta
pastila handi batekin.

Doinua: Badira hiru aste
TXOKOLATE: Haizea Zubimendi

(6A gela)

LO EZIN HARTURIK NAGO

Oroimenean dut gaur goizetik
Inguruneko penkoa
ez diet gurasoei kontatu
hemen gertatutakoa
ohean nago ni esnatuta
pentsatzen kontrolekoa
bihar kontatuko diot aitai
kontrolan lortutakoa.

Doinua: Badira hiru aste
1.0.2.3.: Aitor G.

EZIN LO EGINIK NAGO

Ezin lo hartu nago
edaten esnea
inportantea dena
hori berotzea
bihar eskola dago
norbait topatzea
ongi pasatzen dugu
guazen kantatzea.

Doinua: Maritxu nora zoaz
AKINATOR: Paul Suárez

BELDURTUTA

Lo hartu ezinik nengoen eta
mamua nuen buruan
a ze beldurra sentitu nuen
nik amets gaizto horretan
gorputzean dardarak nituen
Casper zegoen ametsean
burutik atera ezinean
gau dana pasatu nuan.

Doinua: Badira hiru haste
BELDURTI: Aroa Zulaika

LO HARTU EZINIK NAGO

Kaixo lagun guztiok
nago amets txarrekin
Belito otsoa ta
deabruarekin
deabrua etorri
ta ezin dut lo egin
eskerrak ametsa den
banoa zuekin.

Doinua: Astoa ikusi nuen
CERDOMAN: Unax Arrieta

AHIZPA BELDURTZEN

Ezin dut lo hartu ta
hasi naiz altxatzen
izara zuriakin
mamuz disfrazatzen
ahizpan kuartuan sartu
ta bera beldurtzen
azkenian haserre
jaiki da oihukatzen.

Doinua: Triste bizi naiz eta
DORAEMON: Irati de Anta

TRISTE LO HARTU EZINIK

Gaur goizean neskakin haserrau
eta egin deu apurtu
gauen lo hartu ezinik
egin det dena pentsatu
oso gaizki hitzein diotela
ni egin naiz konturatu
eta barkamena eskatuta
ni egin naiz lasaitu.

Doinua: Peio Joxepe
DUDIMAN: Ibai Unanue

KANPING TXARRENA

Kanpinean nago familian,
oporraldiaz gozaten
lokartzeko denbora iritsi,
moskitoak ere kentzen
sartu naiz nire lo zakuan ta,
harri batek niri jotzen
ezin lo harturik ni ta
goiza ari da ailegatzen
behingoz lo hartzen detela eta
ama ja dago jasotzen.

Doinua: Mutil koxkor bat
GOMINOLA: Amaia Aceña

AHIZPAREN MUSIKA

Logelan nago nire ohean,
loak hartzeko prestatzen
ta nire ahizpa ondo ondoan
bere musika entzuten
bolumena du oso altua
gainera ni agoantatzen,
esango diot nire ahizpari
lagatzeko lo egiten.

Doinua: Pello Joxepe
HARTZA: Beatriz Osa

EZIN DUT LO HARTU

Ohera jun naiz eta
ezin det lo hartu
zer pasatu zitzaidan
ezin gogoratu
pentsamendu guztiak
ezin bururatu
bihar esnauko naiz ta
hobeto pentsatu.

Doinua: Triste bizi naiz eta
HERNANDEZ: Oier Izagirre

MAMUETAN PENTSATZEN

Nire etxean nago
mamutan pentsatzen
armairutik irteten
denbora pasatzen
nire amari deika
eta begiratzen
nire ohetik altxa
ta hasi aztertzen.

Doinua: Maritxu nora zoaz
HODEI: Borja Aires

ITSASOA BURUAN

Ohean nabil lo hartu gabe
gauean zer gertatuko,
ez dakizue ze beldur dudan
parean noiz agertuko.

Olatu erraldoi bat aurrean
dudanean galdetzeko,
zergatik apurtu hau guztia?
Guri paretik kentzeko!!??

Lehengo urtean egindakoa
zeba errepikatuko,
edo ez duzu nahikoa izan
besteena suntsitzeko.

Doinua: Badira hiru aste (6 puntukoa)

IZA: Xabi H. B.

EZIN LO EGIN

“Ohera joateko”
amaren esanak,
eskiatzera goaz
eskolakin danak,
nerbioengatikan
lo hartzeko lanak,
begiak itxi orduko
esnatu nau amak.

Doinua: Ama begira ezazu.

JOXEPE: Leire Sagarna

GAU OSOAN LO EGIN GABE

Goizero amak musu batekin
jaikitzeke nau esnatzen,
baina gaurkoan dei egin gabe,
jaiki naiz amorratzen,
gau guztian ni gauza bateri
jardun naiz bueltak ematen,
matematikako azterketak ez
dit utzi begiak ixten.

Doinua: Pello Joxepe
KODE EZKUTUA: Andrew I.

BELDURTUTA

Etxean afaltzen ari naiz ni
nire tripa betetzeko
gero nire hortzak garbitzera
garbiagoak egoteko
orain gaueko hamabiak dira
berandu dagoeneko
lorik ezin det hartu munstro bat
logelan dagoelako.

Doinua: Pello Joxepe.
LOINIK SIN: Najwa Belmokadden

IDEIA

Ideiatxo bat bururatu zait
lo hartu ezinik nago
ta nere aitak galdera egin dit:
oso nekauta al hago?

Ideia hori nere buruan
eta nekia onduan
baina azkenian lo hartu det ta
ni nago orain zeruan.

Doinua: Santa eskea
NEKATUTAAAA...: Manex Prieto

LO HARTU EZINEAN

Lo hartu ezinean
nago gaur urduri
bihar goizean bertan
jungo naiz urruti
herri ta etxe berri bat
ikusiko dut nik
ez dakit zer pentsatu
ez dut nahi agurrik.

Doinua: Astoa ikusi nuen
NIKI: Nikola Silvan

LO HARTU EZINIK NAGO HEMEN

Lo hartu ezinik nago hemen
nire ama badoalako
bihar bere herrira doa ta
ez da gehio bueltatuko
zazpi urte pasa eta gero
berriro dut ikusiko
nahiz eta biok urruti bizi
ez dut maitatzen utziko

Doinua: Badira hiru aste
PEPITO: Jon Loidi

EZIN DET LO EGIN!

Buruan zerbait daukat
atera ezinik
kriston agobiatua
zer egingo dut nik?
Amatxona nijua
ta berriz bialdu dit
saiatzen naiz lo egiten
ta hartu ezinik.

Doinua: Triste bizi naiz eta
SIN CHAN: Maren Beristain

BAHITU NAHI NAUTE

Ostiralean entrenatuta
banoa lasai etxera
telefonoa sonatzen hasi
ta abiatu naiz hartzera
amenaza bat esan dit eta
joan naiz ezkutatzera
horregatikan ezin dut lo hartu
ta sartu naiz komunera.

Doinua: Peio Joxepe
SUPERMAN 1: Jon González

EGUNIK TXARRENA

Ohe barrura sartu naiz eta
nabil ezin lo hartuta
dena gaizki atera zait niri
goiz-goizetikan hasita
goizean estropezu egin dut
ibaira erori eta
pelikulak beldurra eman dit
ni nago desesperauta.

Doinua: Badira hiru aste
SUPERMAN 2: Maite Aperribai

FILM BELDURGARRIA

Pelikula ikusi ondoren
ohean egin naiz bildu
filmeko oroitzapen guztiak
neri logurea kendu
lo ezin egin ta deiadarka
azkar aitatxo lagundu
horrelako filmak ez ikusi
aitatxok gaur frogatu du.

Doinua: Badira hiru aste
XELEBRE: Markel Beristain

GAU LUZEA

Hauxe da gau luzea
loak hartu ezin
buelta alde batera
bestaldera berdin
gora begira etzanda
lorik ezin egin
ardiak ere kontau
azkar pasa dadin.

Doinua: Maritxu nora zoaz
ZERUA: Haize Urbietta

LO EGIN EZINIK

1- Bihar nire urteak
hau poza nirea!
Hortan pentsatzen nago
ta ez dut logurea.

2- Konturatu orduko
ordubiak dira
azkenean lokartu
ta goxo lotara.

Doinua: Ama begira zazu.
ZZZZZ !!!: Danel Formáriz



(6B gela)

RAJOY EZAGUTZERA NOA

1- Lo ezin-eginik ni
nabil bat-batian
eguna heldu da ta
Madrilgo bidian.

2- Rajoy ezagutzera
banoa ni bihar
eskua eman edo
buruakin jo bihar.

Doinua: Ama begira zazu
ADOLFO DOMINGEZ: Markel Abadia

IXILDU ZAITEZTE

Ohean begiak itxi gabe
jendea ixildu arte
taberna ireki zutenetik
ez dut euki nahiko zorte
musikaren bolumena altu,
jeitsiko al duzu gazte?
ezingo det inoiz loak hartu
orain ixildu zaitezte.

Doinua: Badira hiru aste
AGURBENUR: Nerea Zubia

AMETS ARRAROA

Ohean lo egiten saiatu
baina beti ezin lortu
ogroaren etxean amets bat
nik nahi det orain amestu
gauza ikaragarri bat dela
egingo nuke apustu
Iñaki bertsolari handiak
finaleko txapela du.

Doinua: Badira hiru aste
ANTONIO RECIO: Unax Etxabe

ETXEKO LAN ZIZTRINA

Ohean etzanda nago eta
orain hasi naiz pentsatzen
biharko genun etxeko lan bat
ta orain ez dut bukatzen
beste aldera begiratu ta
saiatu naiz loak hartzen
laister eskolara jun bihar eta
ez dakit joango naizen.

Doinua: Badira hiru aste
ARRAINA: Ane Rodríguez

ATHLETIC PARTIDUA

Athletic klub-a ikusten
ari ginen bertan
Errealaren kontra
ezin zuten garaitu
Aupa, Muniain!
Zuregatik ezin dut
lo egin benetan.

Doinua: Pasaiako plazatik
ASMATU?: Alejandro Morillo

AMAREN ISTRIPUA

Etxean, kalean ta denean
beti egon gara batera
ene, nire amatxo maitea!
Pila maite dut nik bera
lo ezin hartu nago ni eta
banoa orain kalera
bihar ea etxera zatozen
orain noa ospitalera.

Doinua: Badira hiru aste
BERIS: Irati Beristain

OSPITALIAN NAGO

Korrika ta presaka
jutearren eta
laiste eroiko naiz ni
zapalduta lata
motibo honegatik
lo ezin hartuta
ni esnatutakoan
ohean bueltaka

Doinua: Maritxu nora zoaz
DANTZARI: Olatz Zabala

EZIN INOR MAITATU

- 1- Hirugarren astea segidan
eta ez det lorik hartu
ez nago ez oso nekatuta
baina ezin errenditu
medikutara joan beharko naiz
baina ezin haserratu
bizitza ez da oso berdina
ezin det inor maitatu
- 2- Gauero berdin-berdinak eta
berdin-berdinak gauero
gauzak ez zaizkit errazak iten
oso zailak dira gero
azkeneko urte zahar hauetan
sufritzen ai naiz zeharo
igual problema hori izango da
triste nago egunero

DOINUA: Badira hiru aste
DEBARRA: Beñat Iriondo

UDALEKUTAKO AZKEN EGUNA

Udalekutako azken eguna
ohean pentsatzen nago
egun tristea izango da ta
nahi ditut egun gehiago
lasai behar naiz, bai, noski,
egingo zait nei zailago
beldurrak akabatuko nau ni,
ta nazkatuta bainago.

Doinua: Badira hiru aste
EIBAR: Oihane Izquierdo

AMAREN ISTRIPUA

Ezin dut orain lorikan hartu
itsasoari begira
oso ondo pasatzen det eta
pistinak ere badira,
gu orain gaude Asturiasen
Euskaditik urrutira
nire amatxo mareatu eta
kruzerotik erori da.

Doinua: Badira hiru aste
EZ IRAKURRI: Xabi Txibite

KONTROLA

Nire buruari behin ta berriz
esaten diot berdina
lo hartu behar det bestela ta
kriston bronka dakat ina!
kontrolean lokartuko naiz ni
ta liburua zikina
azkenean ez noala esan
daukatela kriston mina.

Doinua: Badira hiru aste
GARRIALBI: Garazi Garrido

NERE AHIZPAN BROMA

Nire ahizparen broma batean
ohean ezin lo hartu
begiak zabal ta ni prest nago
baina ezingo dut lortu
lokartzean ta ia zurrunkan
ezingo du ni izutu
goiza da ta komunera noa,
ez naiz ezertaz ohartu.

Doinua: Badira hiru aste
INTXAURRONDO: Maren Lobete

KLIMA ALDAKETA



1- Gabero pentsamendu arraro
ta kezkak buruan sortu
klima aldaketa dela eta
beldurak ezin ukatu
polo aldean hilabetero
eiten da izotza urtu,
baietz hemendik gutxira Deba
ur azpian hondoratu.

2- Eskolan ikasi genun eta
baditut hainbat galdera
baina umeok horrelakoak
ulertzeko gai bagera
aintzinan Itziar auzokoak
zetozen Deba aldera,
ta laster joan beharko gera
debarrok Itziarrera.

Doinua: Badira hiru aste
IZURDEA: June Sudupe

NIRE ANAIAREN FESTA

Ohera joan naiz pijamarekin,
ezin lo hartu isilik,
ohetik anaiari deituta,
ez du jaitsi bolumenik
gero konturatu naiz logelan,
ez daukatela bronkarik,
berak esan dit lagun guzti(e)kin,
ez dagola zaratarik.

Doinua: Badira hiru aste
JUGADA: Jon Movellan

ERDERA

Lo hartu ezinik nago eta
erderako kontrolakin
jarri dizkigu hoge galdera
eta ehun tilderekin
gramatika ta ortografia
ta kaligrafia onakin
ta ez badu ulertzen maisuak
etxera noa penakin.

Doinua: Badira hiru aste
LA TXONI: Unax Arratibel

HOTZ GALANTA

- 1- Gaur goizian esnatu naiz eta
neukan logura itzela
bost egun lo ezinikan nabil
benetan ein naiz ergela
hotz galanta pasatu dut eta
sofan etzanda nauela
zonbi moduan bihurtuko naiz
gaixki pasakot horrela.
- 2- Desesperatu egin naiz baina
guazen asko kantsatzera
gauean manta asko jarrita
ondo tapatuko gera
deskantsatu beharra daukat ta
denok hauxe argitzera
behintzat hiru ordu lotan pasa
eta hoiek disfrutatzer.

Doinua: Badira hiru aste
MR. WILLIAMS: Gorka Arrizabalaga

ERREALA IKUSTEN

1- Erreala ikusten
nago telebistan
tabletean jolasten
eta txutxeak jan
ohera joateko
aitatxok demandan
nik ezetz esan eta
berak baietz erran.

2- Ni ohera joan naiz
baina han esperoan
Betisek gola sartu
eta kaka esan
lokartu ta Errealak
arbitroari jan
bukaeran etxeko
denak ohera joan.

Doinua: Pasaiako plazatik
MV7: Markel Villa

KONTROL MADARIKATUA

Lo harturik ezinik
nago kontrolaren
erruz gutxi ikasi
dut nik arduraren
kulpaz nik Josebaren
negatiboaren
beldur handia dut nik,
ez dut nik ikasten.

Doinua: Triste bizi naiz eta
NONAINONAINONAI: Lizar Eguren

NERBIOAK KENTZEN

Ez dakit zer gertatzen ari den
ezin dut hartu lorik nik
buruari galdezka ari nintzen
bazen erremediorik
nere buruak erantzun zidan
ez da hortarako makinik
nerbioak kentzen saiatu naiz
nago ni lo hartu ezinik.

Doinua: Badira hiru aste

SALAMI KAPITAINA: Derese Pancorbo

DENBORA PASA GABEAN

Lau egun izan dira bakarrik
amaren istripu ostean,
ospitalean dagoenetik
denbora pasa gabean.
Ezin ikusirik nabil eta
aita ni poztu ezinean,
negartsu nago orain etxean
ezin lo hartuz ohean.

Doinua: Badira hiru aste

SOTA: Martina Soto

DENTISTA

Ohean nago lo in ezinik
triste eta oso urduri
hortzak ikaragarri zikin da
mesedez laster erori.

Laster jakingo ote duzuten
dentistarena noala
bihar goizean jaikitakoan
ezingo naiz jun eskola.

Doinua: Santa Ageda
TAURO: Nahia Pérez

NIRE LAGUN MAITEA

Pena handiarekin banoa
kaletik nire etxera
sofan etzanda nago negarrez
apurtu zan eskailera
laguna korrika asko iten
erori da goitik behera
ezin dut lorik hartu nik sofán
asko maite dut nik bera.

Doinua: Badira hiru aste
TXARRAMINTXORRUN: Izar Froilan

ANOETARA NOA

Anoetara noa
nire lagunekin
partidua ikusi
bazkaldu amakin
parranda egin eta
gero mozkorrakin
ohean ezin sartu
dagoen festakin.

Doinua: Plazaiako plazatik.

TXIKITO DE LA KALTZADA: Aimar Carsi

ATSO ZAHARRAREN KATUAK

1- Lo hartu ezinik nago
ta aittu det nik hau
aldameneko etxetik
entzuten da “miau”
gainera ez dia bat
baizik eta hamalau
ardiak kontatzea
alperrikako dau
katakume txarri horrek
nazkatu egin nau.

2- Irten naiz etxetikan
ta jo diot tinbria
han etzauan katuikan
hori da aztia
irudimena zela
hau da iritzia
sorgina zela klaru
gelditu da ia
imaginazioa edo
sorginak al dia?

Doinua: Maixu Ruanda

ZER?: Jare Bengoa



ZUBELTZU

D.B.H.

TELEBISTAKO SAIO BATERA JOATEKO ZALANTZAN NAGO

Neska ixila itxi xamarra
eta baita lotsatia
holakoa naiz eta holakoa da
nik daukadan aurpegia
kosta egiten jende aurrean
lasai lasai egotia
nahi dedan gauza bakarra da nik
lotsa guztia galtzia

Telefonua etzan ixiltzen
norbait nei deika zegoen
telebistatik deitu didate
hauxen hasi zait esaten
telebistatik deitzen dizugu
zu zaitugu gonbidatzen
kasting bat egin nahi dizugu guk
zeba etzera animatzen?

Telefonotik esan didanez
utzi nau ni harritua
gustura jungo nintzateke bai
baina nago lotsatua
ta esan diot eskerrikasko
ez nago interesatua
ni ez naiz telebistako jaio
hori ez da nere lekua

Doinua: Badira hiru aste
AMY ETA KATIE: Sara Goikoetxea eta Maite Iglesias

1.

Telebistako saio batera
joateko zalantzan naiz
gero erronkak ikusi eta
ni urduri jartzen naiz maiz
asteburuko programa hori
joaten da pauso lasaiz
hurrengo baten joan beharko
aurten ez bainabil garaiz

2.

Nik hemezortzi urte baditut
erronkak gogortzeko lain
oso persona gogorrek daude
baina guztiak nire zain
bizi iraupen realitya
ez haragi ta ez arrain
nire buruan sinisten badut
seguru naiz horiek gain

3.

Urtero baten egiten duten
erreality gogorra
jende guztiak animatzen nau
Aitor joan zaitez horra
jada egina dut apustu bat
ez dut nahi eduki zorra
behintzat kasting-a egingo det ta
ez naiz joango mozkorra

4.

Realityko kasting-erako
hasia naiz preparatzen
asteburuan joango naiz ta
ea nauten aukeratzen
jateko eta edari gutxi
hasi beharko naiz ohitzen
ea erronkak irabazi ta
ikurriña dudana lortzen

5.

Telebistako ofizinatik
iritsi zait zoriona
“realityan parte hartzeko
zara zu partaide ona”
familiakin kontsultatu dut
ia saltoka amona
nik “konkis-eko” realityan
markauko det nire zona

ANONIMOA: Aitor Arakistain

Duda bat daukat, ta a ze duda!
ezin naiteke akclaratu,
telebistako saio egoki
bat behar dut aukeratu.
Zalantzak baina dira handiak:
joan edo hemen geratu?
Diru beharra handia da ta,
hobe dut hara aurkeztu.

'Tronista' on bat izan ninteke,
'Gran Hermano'ko alojatu,
'polígrafo'ko biktima edo
'Adan ta-Eva'n basoratu.
'Telecinco'ra joaten banaiz,
dirua ingo zait metatu.
Nahi ez banaute, beste aukeran
ETBkin kontaktatu.

Argitu ondoren, ez naute nahi ni
ez 'tronista' ez alojatu.
Azkenean ETB1era
deitzea egin zait bururatu.
Garbitzaile bezala azkenik
nahi izan naute kontratatu,
dirua sobran ez dut jasoko
hobe etxera bueltatu.

DUDATSUA: Maialen Beristain

1.

Lan gabe gelditzea
modan dago antza,
baina beharrezko da
lortzeko dirutza.
Nahi ez dudanez jaso
inoren jabetza,
telebistara noa
jada ez dut zalantza.

2.

Hainbat saio desberdin
daude hautatzeko
ta hoietako hainbat
ditut nik gogoko.
Buru Beron aurkeztuz
ezagun iteko
ta irabaziz gero
dirua etxerako.

3.

Esperientzia on bat
da hau neretzako,
dirua barra-barra
lortu nuelako.
Jada ez dut bizitzan
lana in beharko
agur nagusi oiha,
agur betirako.

Doinua: Triste bizi naiz eta
EGUZKIA: Ane Arrizabalaga

1.

Telebistako karta bat dago
nire etxeko atean
telesaio batera joateko
gonbidapena bapatean
mozkor handia harrapatu
nuen telebistara deitzean
batek daki zer egingo didaten
kamera horien aurrean.

2.

Batzuei etxean giltzapetu
zein izago den alferren
batzuk ezkondu egiten dira
ezagutu ez diren arren
hori guztia egiten dute
han agertzeren trukeren
edarra duk panoramak
jasateko gai diren.

3.

Nire amari esan ein diot
albiste ezin hobea
berak garraxi egin du, ez du
berdin pentsatzen ordea
abenturarengana joango naiz
orain egongo da pakea
maletak eginarazi dizkit
ze abentura nirea.

Doinua: Badira hiru aste

E.T.E: Lide Laka



1.

Gran Wyomingek duela asko
egin zidan gonbitea
baina ni beti eskusatu naiz
“agenda daukat betea”
aitzakia berarekin galdu
nuen azken debatea
beldurgarria iruditzen zait
La Sextara joatea.

2.

Intermediara joaten banaiz
ez dut lortuko babesa
korrupzioa, boto galduak...
A zer nolako estresa!
Agian proban jarriko dute
PPkoen ingelesa
oraindik ere ez dute ahaztu
kafesnean esamesa.

3.

Plato erdian dantza dezaket
Sorayak egin bezela
PP berritu ta moderno bat
lor dezaket, bai, horrela!
Esperanzak ez joateko dio
berde jarriko nautela
nik gizakiak eduki eta
sentimenduak naizela.

Doinua: Aita semeak
GUAKAMOLE: Julia Ron

ESPERANTZA DA AZKENA GALTZEN

Semearen gaixotasun honek
aldatzen dit destinoa
orain pentsatzen dudan bakarra
behingoz jartzea sanao
horregatik ausartu naiz eta
hartu dut telefonoa
erabakia hartua daukat
programa batera noa.

Nora joan da nire zalantza
programa onik ez da ta
realityak dira nagusi
ordu gehienak hartuta,
lehiaketak berriz ugariak
denok dugu diru falta
oso aspertuta bizi gara,
begiratu telebista.

Ozenki esango dut denentzat
hemen nire dei zabala
esperantza da azkena galtzen
esan ohi duten bezala
gizarteak izan beharra du
haurrekin eskuzabala
egin zaitez organo emaile
zergatik ez berehala.

Doinua: Aita semeak tabernan daude
IH: Irati Aznal eta Haizea Egaña



1.

Eguneroko historia da
ez dagoela dirurik
bada jendea mundu honetan
ez daukana janaririk
alda dezagun egoera hau
garaia da uste dut nik
goazen aurrera ene emazte
dio senarrak bizirik.

2.

Iritsi dira, jada badatoz
ikusiz bere umeak
esaiezu zuk, nik ezin baitut
begi bustiz emazteak.
Zer gertatzen da ? Zer dauka amak ?
jakin mina du semeak
beldurra ere ematen baitu
dena kontatzen hasteak.

3.

Zeinen gogorra, eta zaila den,
jarriz bere azalean,
agur eta ez zaitez itzuli
esan didate lanean.
Gure etxera ere sartu da
diru falta azkenean
egin dezagun zerbait bestela
eskean gara kalean.

4.

Aita ta ama hain burumakur
seme-alabek ze mina
han edo hemen hala edo hala
egingo dut ahalegina
Euskal Telebistara joatea
eskaini didate, baina...
Ea behintzat ematen didaten
bizi izateko adina.

5.

Lasai egon, ez urduri jarri
hau ez baita amaiera
joan ninteko telebistara
horko saioren batera
gure etxean sartu berri den
arazoa kontatzera
agian hau da aurrera joan
ahal izateko era.

6.

Zer diozue? Joango al naiz?
agian salba gaitzke
eta horrela ditugun zorrak
denak ordaindu daitezke
seme-alaba maitagarriak
biok alaitu zaitezte
hala edo hala lortuko dugu
jana erosteko beste.

7.

Hiru lau txanpon elkarrizketan
Euskal Telebistarekin
aurrera irten beharko dugu
eman didaten horrekin
eta jendeak beharko luke
esango dudana jakin
putzu handi bat bete daiteke
tanta mordoxka batekin.

ITXASPE: Aloña Salegi

1.

Bizitzan garrantzitsu
izateko helburu,
daukat nik oraingoan
bihotz eta buru.
Lehen zalantzan nengoen,
orain naiz seguru,
bertan lortuko dut nik
nahi adina diru.

2.

Euskal Herri guztian
ikusiko naute,
saio hontan ni eta
beste hainbat gazte.
Gu ta Gutarrakean
hartuko gaituzte
ta osatuko ditugu
hainbat lagunarte.

3.

Esperientzia hontaz,
esan zidan aittak
izango zituela
nigan aldaketak.
Beraz lanera noa,
jantzita abarketak.
Gehiago maite ditut
baserriko bistak.

Doinua: Ituringo Arotza
KAXERA: Ainhoa Agirregomezkorta

NIRE TALENTUA



1.

Galdera eta zalantza asko
burua daukat motela
Euskal Telebistara joateko
Telecinco-ra bestela
erabakia hartzekoa naiz
urduri daukat sabela
trebetasun hau erakusteko
daukat aukera itzela.

2.

Telecinco-ko Got Talent-a dut
gehien ikusitakoa
programan izena eman eta
ea nauten gustokoa
prestatutako show handi honekin
emango det nik jokoa
ta erraz neureganatuko dut
guztiz hango publikoa.

3.

Eszenatokian ditut begira
milaka begi batera
mingainarekin sudurra ikutzen
hasi naiz gora eta behera
ikusleek barre egin dute
bidali naute kalera
epaimahaiko lau ezezkorekin
nijoa triste etxera.

MAIATZA: Irati Aznal

1.

Duela bost edo sei bat urte
apustu bat egin nuan,
inorrek etzun nigan sinetsi
nik ere nituan dudak,
baina hartu det erabakia
iritsi zait momentua
lantzi ta konpainiak nua
konkistatzera mundua.

2.

Dexente ondo preparatu naiz
programa hori irabazteko,
gimnasio eta parkeetan
aritu naiz buru-bero,
Hego Ameriketako kulturak
bizi eta ezagutzeko,
baina seguru onena dala
gure “Korta verdadero”.

3.

Gaur goizean nere ama Pepa
hasi da neri erreguka,
oso ondo ezagutzen nauenez
badaki gakoan jo dula.
Jateko gutxi dagola eta
gosea pasako dugula,
ama orain ez dakat dudarik
hemendik inoa ez nua.

Doinua: Aita semeak tabernan daude

TIKARA: Amaia Arotzena

Esperientzi bat bizi nahi det
ta denboraz nabil garaiz
moda-modako reality bat
pasatu zait burutik maiz
fama, dirua ta mutilakin
etxera bueltauko banaiz
ez da batere ideia txarra
serio planteauko naiz.

Baditu baita bere alde txarrak
ta ikusle asko aurkari
naizena ezagutuko dute
gauza pribatu ugari
ez naiz batere lasai egongo
kamarak nire zaindari
ni kritikatzeko motiboak
nago ematen munduari.

Aukera denak ondo beituta
balantza ez da mantendu
alde txarrak balantza horretan
pisu gehiago hartu baitu
denok famili bakarra dugu
eta behar dugu zaindu
trankil ta pozik bizitzea ezin
baita inola ere ordaindu.

Doinua: Peio Joxepe
ZARA: Ane Agirregabiria



"ZUBELTZU"

NAGUSIAK

1.

Sei orduz autobusaren parte
zenbat dira guztira?
Gorputza gogortu, nekatu naiz
kanpoko marrei begira
amagandik banandu ninduten
zergatik hain urrutira?
Aitatxok malko bat lapurtu dit
magalera erretira.

2.

Laztan goxo batek esnatu nau
“iritsi gara maitea”.
Burnizko etxe baten parean
itxia dauka atea
eguzkirik gabeko negua
hotz daukat borondatea
astebururo zazpi urteetan
noiz hautsiko da katea.

3.

Sarreran otso gizon lodi bat
“poltsiko denak hustu”.
Susmo txarren pizgarri naiz eta
“gerritik gora biluztu”.
Aitaren indar gabeko hitzen
ezina malkoz gorpuztu
kristal lodi atzeko itzalak
argiz dit bihotza puztu

4.

Amatxo nik beti maite zaitut
arren ez egin negarrik
zenbatutako minutuetan
hitzak gal ez dezan garrik
zure hutsak mintzen gaituenik
ez dizut esan beharrik
heldu da agurraren ordua
ez dut barnean indarrik.

5.

Bakarrik giltzapean utzita
nola joan etxera?
Zenbat kontu iheslari eta
zenbat hitz hutsen galera
isiltasunaren magalean
noiz da hurrengo aukera?
Urruntasunak banantzen gaitu
denborarekin batera.

6.

Izotzez betetako bidean
eserleku berdina
itzulera amaigabearen
gurpilen bira arina
autobusa maldan amildu da
odol errekaren mina
azken hatsa zuretzat da aita
betiko preso egina.

Doinua: "Ama nola zure belaunetan"
(Mundurat eman ninduzun-Benito Lertxundi)

ERMITTA: Zigor Agirre

ORRATZAK

1.

Lau metro kuadro zituen
gela madarikatua
bihurtu zen hamar urtez
nere ezkutalekua
kable batetik txintxilik
bonbila zaharkitua
mahai bat eta aulki bat,
irradiaren kantua
kortina baten atzean
zegoen nere patua
nere lana ixilpean
egitea zen kontua
eta inork ez zekien
denda honen sekretua
erakusleiho gardenak
zuela ezkutatua

2.

Hatzamar abilak dira
erlojulariarenak
aitarenak puztu ziren
eta orduan problemak
oinordekotzat seme bat
esaten zuen sistemak
semerik ezean, ara!
Piztu zituen sirenak
nahizta ikasletzat hartu
aldatu ziren eskemak
merituak berak hartuz
berez nireak zirenak
ta hala erakutsi dit
bizi izan dudak denak
ez direla erlojuenak
dauden orratz zorrotzenak

3.

Gazte gazte ezkontzea
zen garai haietan moda
ta ni Antonio gabe
ez nintzen joaten inora
lau seme polit hazteko
izan genuen ganora
hala gainditu ditugu
hamaika krisi ta proba
baina duela sei urte
joan zitzaigun hor gora
orain zerutik begira
denok zaintzen egongo da
nahiz laurogei urte izan
beti datorkit gogora
bere muxu bakoitzean
gelditzen zela denbora

4.

Pantailek burutu zuten
orratzen txikizioa
alferrik ziren mailua
torloiua, olioia
bitxiek ordeztu zuten
betiko ofizioa
eder eder azaltzeko
zegoen afizioa
urre gorria, zilarra
esmeralden bizioa
dirua bilakatu zen
pozaren arerioa
nahiz eta dendan nabari
txin txin hotsaren giroa
hemengo ezerk ez dauka
denboraren balioa

5.

Denda barrutik begira
erakusleiho parera
gaur egun degun mundua
ez da lengo mundu bera
jendea harrapaladan,
kotxeak gora ta bera
denbora geuk sortu eta
bere esklaboak gera
hemengo ordu luzeak
hor segunduen antzera
erlojuko orratz beltzak
poliki doaz aurrera
irrifarre bat ahoan
begiratuaz atzera
azkeneko bira hau da
bizitzaren amaiera

Doinua: Nere mundu intimoa
KALABAZA: Josune Arakistain

HAUXE DA HAUXE MUNDU PETRALA

Neurria: Hamarreko handia

1.

Telebista aurrean nago
gaur zer ote da gertatu?
Ahal den ondoen zuei kronika
nahi nizueke kontatu.
Lehendabiziko albiste honekin,
zur eta lur naiz geratu!
Titiritero “gaizkile handi bi”
kartzelan dituzte sartu
egia da bai hamaika gauza
ikusteko gara sortu.

2.

Hurrengo albiste bitxi hau ere,
hara nolatan datorren!
Levante aldean PPko horiek
lapurretan ari omen
baina arriskurik ez dute hauek
preso sartzeko, bederen
galdetu ere ez eginda hobe
dirua itzuliko duten
azeria oilo zain ipinita,
zer espero zitekeen?

3.

Orain datorren albiste honek
Monarkia du jomuga
elefanteen ehiztari horrek
duen alaba kuttuna
senarra zertan ote zebilen
arrastorik ere ez duna
Urdangarin hau bitxo ederra
ta emaztea tuntuna
hauxe duk hauxe golfo koadrila
hemen juntatu zaiguna.

4.

Aurrera doa albistegia
ez era atseginean
bikote baten drama gogorra
etxea ordaindu ezinean
emaztea haurdun eta senarra
bi makuluren gainean
banketxeari bost axola hori
kaleratu bat-batean
haien garrasi hotsak bihotza
hunkitu dit zuzenean.

5.

Gaixo dagoen preso bati gaur
ukatu askatasuna
harro eta oldarkor hor agertu da
Fernandez Ministro Jauna
aholku emaile Aingeru Guarda
duelako ezaguna
eliz gizona izanagatik
ez du ez bihotz biguna
kosta behar zaio honi salbatzen
bere arima lizuna.

6.

Nazioarteko kontuak ere
aipatutzea merezi
jende andana gerrate eta
miseriatik ihesi
mendebaldeko agintariak:
ze maltzur, zenbat malezi
iheslariak ez etortzeko
jarri dute hainbat hesi
europarra izate hutsak
lotsa dit sentiarazi.

7.

Beste albiste bat ere badator
Karitasen iturritik:
mundu erdia txiroa omen
ez dute elikagairik
denen artean ez dute hoge
boteretsuen ondarrerik
eskubideak ta justizia
hitz hutsalak bihurturik
pentsakor nago mundu ustel honek,
ba al du konponbiderik?

8.

Prentsa arrosa eta kirolak
datozte ondorenean
baina ez daukat jarraitzeko orain
indarrikan barrenean
eztarria ere lehortua dut
txisturik pasa ezinean
kronika ezin bukatu eta
nator barkamen eskean
bukatuko dut berri hobeak
munduan ditugunean.

Doinua: Mundu honetan holako gauzak
KRONISTA TXEPELA: Karlos Larrañaga

ANIMALIA ALA GANADUA?

1.

Animalia den gizakia
pasa zaigu ganadura
adibideak ugari dira
begiratuaz mundura
harrigarria degu Europak
egin duen itxitura
neurri justuan ematen zaie
janaria eta ura
garai bateko abeltzain haiek
egiten zuten modura.

2.

Jendea pozik bizi ote da,
hormigoizko karioletan?
Uda-berrian, arrak bezela
egunero ilaretan
pertsone askoren egoera
tristeza degu benetan
hanka hutsikan, janari bila,
zabor hontzien hertzetan
eta bestalde txakur gizenak
xirarekin kaleetan.

3.

Biztanlerian zati handi bat
galduta nora ezian
ardien gisa, pasa ezin da,
ezarritako hesian
uso kumeak milaka dira
hemen arto eskasian
Espainiatik Alemanira
joaten dira “pasian”
ta “puesto” ona duten zakurrak
hauei tiroka, ehizian!

4.

Demokraziak horrela dio
eta hau da gure funtsa
atzerritarrak zaindu ditzagun
eman behar den laguntza!
Kontu serioa da eta ez
da ari eztulka ahuntza
debaldeko ogiaren bila
etortzen dira honuntza
besteei eman ta guri berriz
akuiluarekin bultza.

5.

Gorbata duten “ganaderoek”
kate motxean naukate
Espainiako ukuiuetan
lepoa adina kate
autoktonoa den ganadua
komeni dena aparte
lanera kondenatuta gaude
denok odolustu arte
gero “heriotza naturala
zela” esango didate.

Doinua: Mutil koxkor bat
TEO: Ander Zulaika





ANTOLATZAILEAK:



BABESLEAK:

